

**EUSKADI** *Urdina*

*Geurea zaindu*



**#EUSKADIBERRIA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



# 01

Ekonomia Urdina Euskadin

## Ekonomia urdinaren kontzeptuak jarduera hauek biltzen ditu: itsasoko baliabideen ustiapenetik hasita haien azken kontsumorako eta birsorkuntzarako

### Ekonomia Urdinaren Kontzeptua

Jarduera-taldeak: itsasoa modu jasangarrian ustiatu beharreko bitartekotzat hartzen duen ikuspegitik hasi eta azken erabileraraino.

Itsas bitartekoaren beraren erabilera, **nautikaren** eta **turismoaren** kasuan bezala.

**Merkaturatzaileen** eta **ostalaritzaren** kasuan ustiaturako, eraldaturako eta banaturako baliabideak

Gainera, birziklatzeko eta hondakinak kudeatzeko jarduerak gehitu dira.

#### JARDUERA-MOTAREN ARABERA TALDEKATzea

|                                                                                                |                                                 |                                                                               |                                                                                         |                                                                                                                 |                                                                                  |  |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------|--|
| Arrantzaleak eta akuikultoreak<br>Itsas baliabide biziak                                       |                                                 | Baliabide ez-bizien<br>ustiatzaileak<br>Ura, petrolioa, gasa, gatz, mineralak |                                                                                         | Itsasoko industria energetikoa<br>Itsasotik eratorritako energia<br>Energia elektrikoa                          | Ontziolak<br>Itsasontzi-ontziolak                                                |  |
| Elikagaien<br>prozesadoreak<br>Kontserbagileak,<br>izoztuak, gatzituak...                      | Bioteknologiak<br>Itsas jatorriko<br>produktuak | Findegiak<br>Erregaia, asfaltoa,<br>etab.                                     |                                                                                         |                                                                                                                 |                                                                                  |  |
| Logistika-enpresak<br>Biltegiatzea,<br>banatzea eta<br>hornidura-katearen<br>kudeaketa         | Portu Agintaritza                               |                                                                               | Itsas garraioa<br>Ontzi-enpresak, armadoreak, transitarioak,<br>kontsignatarioak, etab. |                                                                                                                 |                                                                                  |  |
| Handizkariak eta txikizkariak                                                                  |                                                 | Merkatuak eta azokak                                                          |                                                                                         | Marketing enpresak<br>Itsasoarekin lotutako produktuak sustatzea                                                |                                                                                  |  |
| Nautika enpresak<br>Aisialdiko nautikan diharduten enpresak eta erakundeak                     |                                                 |                                                                               |                                                                                         | Turismoa eta Ostalaritza<br>Jatetxeak, agentziak eta turismoa eta ostalaritzako gainerako parte-<br>hartzaileak |                                                                                  |  |
| Hondakinak kudeatzeko enpresak<br>Hondakinak biltzeko, tratatzeko eta ezabatzeko<br>zerbitzuak |                                                 |                                                                               | Birziklatzeko instalazioak                                                              |                                                                                                                 | Ingurumen-erakundeak<br>Jardunbide jasangarriak sustatzen<br>dituzten erakundeak |  |

# Europako Batzordeak emandako definizioari jarraituz, Ekonomia Urdina (EU) itsas eremuei lotutako jarduera ekonomikoen multzoa da, ekosistemen ingurumen-kontserbazioarekin bateragarria dena

## Zer da Ekonomia Urdina (EU)?

Ekonomia Urdinak itsasoaren mende dauden jarduera ekonomiko eta sektore guztiak hartzen ditu, eta, horregatik, elkarren mendeak dira (arrantza, akuikulturako eta itsasoko bioteknologia, turismoa, nabigazioa eta itsas garraioa, besteak beste).

Eskumen komunetan eta azpiegitura partekatuetan (portuak, logistika-sareak eta banaketa elektrikoa) eta itsas baliabideen erabilera jasangarrian oinarritzen dira.

Ekonomia Urdinak, gainera, Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen laguntzen du, CO2 isuriak gutxitzeari dagokionez, adibidez.



## Ekonomia Urdineko (EU) sektoreak Europako Batzordearen arabera

### SEKTORE HELDUAK

Itsas baliabide biziak  
 Itsas baliabide bizigabeak  
 Itsasoko energia berriztagarria  
 Portuko jarduerak  
 Itsasontzien eraikuntza eta konponketa  
 Itsas garraioa  
 Kostaldeko turismoa

**Ekonomia Urdina**  
 (Europako Batzordeak emandako definiziaren arabera)

### SORTUBERRIKO SEKTOREAK

Gatzgabetzea  
 Itsas mineralak  
 Itsasoko bestelako energia-iturri berriztagarriak  
 Itsas azpiegiturak  
 Bioteknologia urdina  
 Itsas defentsa, segurtasuna eta zaintza  
 Ikerketa eta hezkuntza

## 14 sektoretan egituratuta: 7 sektore heldu eta sortuberriko 7 sektore

Euskadik 246 km-ko kosta du, kostaldeko 11 eskualde, itsasoko jarduerekin lotutako ondare historiko handia eta, guztira, 2.821 milioi euro Ekonomia Urdinean

## EUren testuingurua Euskadin



### KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Euskadi kostaldeko lurraldea da; bere 26 eskualdeetatik 11 itsasertzean daude, eta, guztira, 246 kilometroko kosta du.

Kostaldeko eskualdeak hauek dira: Uribe Kosta (15 km kosta), Ezkerraldea (10 km), Eskuinaldea (20 km), Meatzaldea (15 km), Mungialdea (16 km), Lea-Artibai (22 km), Busturialdea (20 km), Urola-Kosta (20 km), Deba Behea (17 km), Donostialdea (20 km) eta Bidasoa Behea (9km).



### JARDUERA EKONOMIKOA

Euskadin, 2024ean, 2.821 milioi euro inguru bildu ziren Ekonomia Urdinaren (EU) kontzeptu gisa (BEG osoaren % 3,3).

Probintziaren arabera, Bizkaiak Euskadin EUan bildutako % 55 ordezkatzen du; ondoren datoz Gipuzkoa (% 37) eta Araba (% 8).

Busturialdea eta Lea-Artibai eskualdeak nabarmentzen dira, horietan EUak pisu handiena baitu eskualdeko ekonomian (BEGaren %); Gipuzkoako kostaldeko eta barnealdeko eskualdeen arteko aldeak oso txikiak dira.



### ENPLEGUA

Euskadik 37 mila FTE baino gehiagoko ekarpena egin dio Ekonomia Urdinari; hori biztanleria okupatu osoaren % 3,2 da. Datu horrek agerian uzten du itsasoak lurraldeko enpleguaren eta jardura ekonomikoaren eragile gisa duen garrantzia. Gainera, Ekonomia Urdinak aukera profesional berriak zabaltzen ditu berrikuntzarekin, jasangarritasunarekin, portu-jarduerarekin eta itsasertzari lotutako sektore emergenteekin lotuta.



### SEKTORE NAGUSIAK

Euskadiko ekonomiaren funtsezko sektore askok garrantzitsuak izaten jarraitzen dute gaur egun.

Itsas Garraioa ( % 30 inguru) da Euskadiko Ekonomia Urdinari (EU) ekarpen handiena egiten dion sektorea; Ontzigitzen eraikuntzarekin eta Konponketarekin, bai eta Portu Jarduerekin batera, guztira, zenbateko osoaren % 62 biltzen dute.

Sektorekako sailkapenean, laugarren postua lortzeko, lehia ari dira Itsas Baliabide Bizidunak eta Kostaldeko Turismoa.



### ONDARE HISTORIKOA

Euskadiko gizarte nortasuna eta kulturala lotura estua dauka Ekonomia Urdinarekin (EU).

Itsas tradizio eta arrantza-jardura handia du.

Ontzigitza eta itsas industria tokiko ekonomiaren oinarritzko zutabeak izan dira.

Itsasoko arrantzari, nabigazioari eta gastronomiari lotutako tradizioak Euskadiko kultura ondarearen parte dira.

FTE: Full-Time Equivalent = Lanaldi Osoko Baliokidetzatza

**Jardura gehiena Bizkaian ( % 55 inguru) eta Gipuzkoan (% 37 inguru) biltzen da; Itsas Garraioak, Ontzigitzak eta Portu Jarduerak Ekonomia Urdinaren (EU) % 62 hartzen dute**

# Euskadiko Ekonomia Urdina BEG osoaren % 3,3 eta enpleguaren % 3,2 da

## Handitasun nagusiak (2024)

### EUROPAR BATASUNA


EBean, EUren BEGak guztizkoaren % 1,7 ordezkatzen du (FTEen % 2,6)

### ESPAINIAKO ESTATUA

Espainiako Estatuaren EUren BEGak (gutzizkoaren %2,9)  
EBeko EUren BEGren %15 ordezkatzen du. EUren FTEei dagokienez (gutzizkoaren % 3), EBko EUren FTEen % 13 dira

### EUSKADI

EUren BEG % 3,3raino igo da Euskadin BEG osoarekiko, eta FTEen ordezkaritza BEGren antzeko mailan mantentzen da (%3,2)




FTE: Full-Time Equivalent = Lanaldi Osoko Baliokidetzatza

**Ekonomia Urdinari dagokion BEGeko 2,8 MM€-tik, (2024ean Euskadin estimatua), % 67a (1,9 MM€) sailaren eskumenekoak diren sektoreei dagokie**

Busturialdean eta Lea-Artibain ( % 12,4 eta % 12,6, hurrenez hurren) dago ekonomia urdinaren\* proportziorik handiena eskualdeko BEGaren gainean

Ekonomia urdina Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualdeetan (% BEG Ekonomia Urdina guztia eskualdeko BEG, 2024)



\*Eueko sektore helduak bakarrik sartzen dira dimentsionamendu fase osoan, EBren azterlanarekin bat etorritik

**Gipuzkoan, ekonomia urdinak guztizkoaren gainean duen proportzioa oso antzekoa da bere kostaldeko eskualdeen eta kostaz kanpokoko eskualdeen artean. Urola Kosta nabarmentzen da, % 4,1ekin**

# Euskadik oinarri ona du (EBren pisu erlatiboa, eskualde urdinak, enpresa-ekosistema, I+G) abiapuntu lehiakor bat eraikitzeko

## Barne analisiaren ondorio nagusiak – erantsitako ikuspegia

Euskadik Espainiako Estatuan eta EBean duen pisu erlatiboa nabarmena da. Bizkaian eta Gipuzkoan kontzentratzen da

Euskadiko Ekonomia Urdinak BEG osoaren % 3,3 (2.821 milioi euro) ordezkutzen du, proportzio hori da Espainiako Estatuko jarduera ekonomiko horrek dakarrena (% 2,9) baino apur bat handiagoa. Europar Batasuneko batez bestekoa (% 1,7) nabarmen gaitzen du. Enpleguari dagokionez, proportzioak antzekoak dira.

Lurralde-banaketari dagokionez, **Bizkaia** (% 55) eta **Gipuzkoa** (% 38) biltzen dute Euskadiko Ekonomia Urdinaren gehienekoa. **Itsas garraioa**, ontzigitza eta portu-jarduera **pisurik handieneko sektoreak** izanik, eta segidan kostaldeko turismoa eta **itsas baliabide** bizidunak.

Ekonomia Urdinaren pisuaren atomizazio geografikoa Bizkaiko eskualdeetan ematen da. Gipuzkoan homogeneoagoa da

**Bizkaia** Ekonomia Urdinaren **atomizazio** maila handia du, batez ere **itsasbaterreko eskualdeetan**; salbuespenak salbuespen, hala nola, Eskuinaldea, Ezkerraldea eta Uribe Kosta, non pisua ohikoa baino txikiagoa da. Bestalde, Txorierrin (teknologia-parkea) eta Bilbon (portua eta hiriburua), Ekonomia Urdina garrantzia handia daukate, barnealdekoak izan arren.


**Busturialdea** eta **Lea-Artibai** eskualdeak nabarmentzen dira, alde handiz, eskualdeko BEGri dagokionez, Ekonomia Urdinaren proportziorik handiena dutelako (% 12,4 eta % 12,6, hurrenez hurren); bi kasuetan, arrantza-jarduerak sustatuta.

**Gipuzkoan**, Ekonomia Urdinaren pisua **antzekoa** da kostaldean eta barnealdean. **Urola Kosta** nabarmentzen da % 4,1ekin, itsas baliabide biziaren ekarpenari esker.

Enpresa-ekosistema sendoa, %100ean Ekonomia Urdinari lotutako 270 enprekin

Euskadik Ekonomia Urdinari lotutako 270 enpresa ditu (%100ean). Azpisektoreen artean **Portu-jarduerak** nabarmentzen dira, eta eremu geografikoari dagokionez, **Bilbo**. Egoera horretan eragin handia dute hiriburutza-efektuak eta portua egoteak.

Gainera, **41 enpresa bultzatzaile** ditu; fakturazio-, I+G- eta hazkunde-maila altuengatik nabarmentzen direnak, eta oso ondo kokatuta daudenak **Itsas Energia Berriztagarrien** antzeko azpisektoreetan eta **beste sektore garrantzitsu batzuetan**, eta batez ere **Bilbon**, **Busturialdean**, **Eskuinaldean** eta **Ezkerraldean** (Meatzaldearen kasuan, Petronor dago).



Euskadin EUri lotutako I+Geko inbertsioa 29M€-tik gorakoa 2024ean, itsas energia-iturriei lotutako proiektuetan kontzentratuta

I+G inbertsio garrantzitsua Euskadin 2024ean, **Ekonomia Urdineko** sektoreei lotuta (29,1 M€), aldi horretako I+Gean egindako inbertsio osoaren % 9a, batez ere Itsas Energia Berriztagarrietan eta **itsasoari lotutako beste energia-iturri batzuetan**.

Teknologia-esparruaren arabera, **Material eta Prozesuei** (% 44) eta **AA/Big Datari** (%33) lotutako **Ekonomia Urdineko I+Geko proiektuek** gastuaren zatirik handiena berenganatzen dute Euskadin; Bizkaiak 2021-24 denboraldiko 102 milioi euroko inbertsioaren % 55 a dauka.

Ekonomia Urdina **dinamizatzeko beste elementu batzuk** ere nabarmentzen dira, halaber, Getxo Itsas Hub, Bermeo Tuna World Capital edo Hub Oarsoaldea Urdina **ekimenak**. Baita ere, **Eskualdeko Plan Estrategikoak** (Lea-Artibai, U-Bai, etab.) edo itsas jardueraren inguruko **topaketak**, hala nola, World Maritime Week.

Busturialdea eta Lea Artibai itsas azpiegiturako gune nagusi gisa

Itsasertzaren garapenari dagokionez, **Busturialdea eta Lea Artibai** eskualdeak bi polo nagusi dira, fokua itsas azpiegituran dutenak, **12 portu guztira** izanda. Gipuzkoak flota garrantzitsua du (75 itsasontzi baino gehiago), eta arrantzako, kiroletako eta logistikako **portu-azpiegitura** hornidura ona du, **kostaldeko eskualdeen** artean.

Arrantza flota urritzen ari da, baina merkatu-balio globalari eusten dio

Euskal arrantza eraldaketa prozesuan dago: **baxurako arrantzak atzera egin du alturako eta industriako flotaren** mesedetan. **Ondarroa da nagusi harrapaketat**an eta enkantean jarritako arrain bolumenari dagokionez; **Pasaia**, berriz, balio ekonomiko nabarmena dauka. **Bermeo**, harrapaketari dagokionez, balio handiena lortzen duena da, berdelaren prezioaren igoerari esker.

Aisialdiko nautikak hazteko potentziala dauka, dauden aktiboetatik abiatuta

Euskadik ondo egituratutako **itsasertzeko sare nautikoa** du, **Getxo, Hondarribia eta Donosti** bezalako **funtsezko portu** gutxi batzuetan kontzentratua. - **eta aisialdi-eskaintza** aktiboa da, nahiz eta lurraldeen artean desberdina izan.

# Indarrean dagoen politika publikoaren esparruak, beste eskualde batzuetako estrategiek eta joera globalek itsas espazioaren berrikuntzan, talentuan eta gobernuan jartzen dute arreta

Berrikuntza, talentua, jasangarritasuna eta itsasertzaren gobernantza ardatz dituen politika publikoaren esparrua

Berrikuntza, talentua, ingurumen-jasangarritasuna eta itsasertzaren **gobernantza** dira gehien errepikatzen diren esparruak, Euskadin Ekonomia Urdinari **eragiten** dioten **politika publikoko** esparruetan oinarritzen direnen artean; esparru horietatik hub-ak, esperimentazio-guneak, Heziketa-programak, ekosistemak leheneratzeko planak, kostaldea gobernatzeko ereduak eta abar sustatzen dira.

Funtsezko esparru horiek beste batzuekin **osatzen dira**, hala nola funtsezko **azpiegiturak modernizatuz** (batez ere portuak), dauden aktiboetatik abiatuta **ekonomia dibertsifikatuz**, eta **inbertsioak eta proiektu** traktoreak **erakarriz**, eskualdeak Ekonomia Urdinaren inguruan dituen aukeren sustapen aktiboaren bidez.

Norvegia nazioarteko erreferentzia gisa, azpiegiturretan eta erakundeen koordinazioan arreta jarrita, beste autonomia-erkidego batzuen estrategian nabarmentzen den eremua (prestakuntzarekin batera)

Heldutasunari dagokionez **Norvegia** buru da Europako ekonomia urdinaren garapenean, eta haren atzetik daude **Portugal** eta **Irlanda**. **Azpiegituren** modernizazioan, **berrikuntzan** eta **erakundeen koordinazioan** kontzentratzen dituzte beren estrategiak, eta ekimen aipagarriak dituzte, hala nola arrantza-industria digitalizatzeko programak edo erakundeen arteko elkarriketa-foroak.

**Kanariak, Galizia eta Katalunia** dira estrategietan aurrerapen-mailarik handiena duten eskualdeak. Horietan, azpiegiturek ez dute hainbesteko pisurik; aitzitik, **heziketak hartzen du protagonismo** handia (berrikuntzarekin eta koordinazioarekin/gobernantzarekin batera), Ekonomia Urdineko sektoreekin lotutako gaitasunetan trebatzeko programak sustatuz.

Portu eta itsasontzietako automatizazioa eta elektrifikazioa nabarmentzen dira joera teknologikoen artean, subiranotasun estrategikoa, elikadura-segurtasuna eta talentu urdina eskatzen dituen merkatu baten aurrean

Portu-jarduerak dira, epe ertainera (2050erako zerumuga) hautemandako merkatu-joera eta joera teknologiko **nagusien** eragin handiena jasoko duen sektorea; ondoren, **Itsas Baliabide Biziak** eta **Itsas Garraioa** datoz.

**Merkatuko joeren** artean, honako hauek nabarmentzen dira: **turismo jasangarriaren** bilakaera, erresilientzia eta subiranotasun estrategikoen eskaera, belaunaldi-aldaketa eta **talentu** urdina, edota elikagaien segurtasuna eta **trazabilitatea**.

Atal **teknologikoan**, joerek honako norabide hauek dituzte: portuen **elektrifikazioa eta automatizazioa**, arrantzaren trazabilitate digitala, urpeko ikuskapenerako robotika edota eolika flotatzailea merkataritza mailan.





# 02

Estrategiaren  
planteamendua eta hedapena



Planteatutako formulazio estrategikoa eta haren hedapena bi inputs motatatik sortzen dira: barnekoak (diagnostikoa) eta kanpokoak (sektorearen bilakaera eta benchmark)

Definizio estrategikorako erabilitako metodologia

| Inputs | BARNE DIAGNOSTIKOA |                                    |                             | KANPO DIAGNOSTIKOA                   |                                     |              |
|--------|--------------------|------------------------------------|-----------------------------|--------------------------------------|-------------------------------------|--------------|
|        | Dimentsionamendua  | Egungo jardura eta posizionamendua | Elkarriketak eta galdetegia | Sektorearen eta teknologiaren joerak | Hurbiltasuneko esparru estrategikoa | Benchmarking |

Inputsetan Ekonomia Urdinaren sektore guztiak jasotzen dira



| Outputs | FORMULAZIO ESTRATEGIKOA |                |                                        |                           |
|---------|-------------------------|----------------|----------------------------------------|---------------------------|
|         |                         |                |                                        |                           |
|         | HEDAPEN ESTRATEGIKOA    |                |                                        |                           |
|         | Ekintza plana           | Finantza-plana | Gobernantza eta dinamizazio sektoriala | Jarraipena eta ebaluazioa |

Outputsetan sailaren eskumeneko Ekonomia Urdineko sektoreak baino ez dira jasotzen

\* Itsas baliabide biziak, itsas garraioa, kostaldeko turismoa eta portuko jarduerak

# Euskadiko Arrantza, Portu eta Itsasertzeko Garapen Estrategia (2026-2030) - EU bultzatzeak jauzi kualitatibo bat eman nahi du, benetan bereizgarriak diren elementuak gehituz

Euskadiko Arrantza, Portu eta Itsasertzeko Garapen Estrategiaren elementu bereizgarriak (2026-2030) - Ekonomia Urdina bultzatzea

## Produktua berezko ardatz estrategiko gisa kokatzea.

Plana ez da sektoreko eta lurraldeko premiak indartzera soilik mugatzen; aitzitik, produktuaren dimentsioa berariaz txertatzen du berezko ardatz estrategiko gisa, itsas sektoreen eta horiei lotutako agenteen jasangarritasuna sendotzeko asmoz.

## Helburuen integrazioa, jarduera tradizionaletan eta sektore gainerakorretan arreta jarritz.

Beste plan batzuetan ez bezala, estrategia honek helburuak, ekimenak eta ekintzak biltzen ditu, bai jarduera tradizionalak indartzera eta laguntzera bideratutakoak, bai aukera sendoak garatzeko bidean sortzen ari diren sektoreak bultzatu eta laguntzera bideratutakoak.

## “Ardatz instrumentaletik” “ardatz estrategikora” doan belaunaldi-erlebeboa.

Planak belaunaldien arteko erlebeboaren inguruko problematika hartzen du lehentasun nagusi gisa, eta 3 ildo estrategiko propiotan gauzatzen da, erakundeen zeharkako partaidetzarekin eta lankidetzarekin.

## Sektorearen jasangarritasunerako orientazio praktikoa (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa)

Planak konpromisoa hartzen du sektorearen eta itsasertzeko beste jarduera batzuen errentagarritasuna areagotzeko; horretarako, hainbat arlo jorratuko ditu: berrikuntza aplikatua, digitalizazioa, dibertsifikazioa, merkatu berrietarako sarbidea, talentuaren sustapena eta belaunaldi-erlebeboa.

## Sektorearen nortasuna finkatzea itsasoari lotutako komunitateen inguruan

Komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzak integratzeaz gain, itsasoari lotutako profesionalen, enpresen, erakundeen eta komunitateen artean kide izatearen sentimendua ere sustatu eta bultzatuko da.

## Zer egiten den bezainbeste, nola egiten den ere zaintzen duen gobernantza

Planak, ildo estrategikoak ez ezik, horiek ezartzeko modua ere indartzen du: zerikusia duten sektore guztien lurralde-gobernantza partekatu eta integratzailearen bidez, dauden dinamizazio-mekanismoak indartuz.

## Lurralde-kapilaritatea, indarberritzeko logikarekin, ez estaldurarekin bakarrik.

Lurralde-garapenaren ikuspegia tokiko plangintzatik, elkarlaneko gobernantzatik eta dinamizazio eraginkorretik egituratzen da. Lurraldearekin lan egitean datza, haren potentziala aktibatuz, biztanleria finkatuz eta bizitza- eta enplegu-aukera berriak sortuz.

## Hizkuntza eraldatzaile bat, helburuari eragiten diona.

«Indartu», «Sendotu», «Bultzatu» edo «Lagundu» bezalako aditzak erabiltzeak esparru narratibo indartsua eskaintzen du, ekintzarekin, aldaketarekin eta asmoarekin lotzen duena.



## Euskadiko Arrantza, Portu eta Itsasertzaren Garapenerako Estrategiak sei zutabe ditu, lortu nahi duen misioari eta lortu nahi duen ikuspegiari eusten diotenak

### Misioa, Ikuspegia eta Zutabeak

#### Misioa

Euskadin, arrantza- eta akuikultura-sektorearen **garapen iraunkorra, berritzailea eta lehiakorra**, portuen eta itsasertzaren esparruan bultzatzea...

... horrela Ekonomia Urdina sustatzen lagunduz...

... egungo sektorea **indartuz eta eraldatuz**, aukera berriak **aktibatuz**...

... balio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa sortuko dituen elkarlaneko **governantza-eredu** berri baten bidez.

#### Zutabeak



#### Ikuspegia

**Euskadi**, arrantza- eta akuikultura-kudeaketan, portu-kudeaketan eta itsasertzeko kudeaketan **erreferente** bihurtzea...

... baita Ekonomia Urdin jasangarri, bidezko, lehiakor eta berritzailearen poloa ere...

... **ekosistema dinamiko, konektatu** eta erresiliente batekin...

... **kalitatezko enpleguari** eutsi eta hori sortzeko gai da, itsasoko eta kostaldeko baliabideak babesteko eta lurralde-orekari laguntzeko.

Lerro estrategiko bakoitza hainbat apusturen inguruan egituratzen da; apustu horiek ondoren zehaztutako ekimenak eta ekintzak segmentatzen dituzte, definitutako helburuak lortzeko

| Ildo estrategikoa                                                                                 | Helburua                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1 Belaunaldien arteko erreleboa bermatzea                                                         | Itsasoari lotutako sektoreen jarraipena eta iraunkortasuna ziurtatzea, <b>talentu gaztea</b> erakartzeko, <b>prestatzeko eta atxikitzeko</b> estrategia integral baten bidez, egungo heziketa-eskaintza sektorearen benetako beharrekina lotuko duena, <b>lanbide tradizionaletan erreleboa</b> sustatuko duena eta belaunaldien arteko ezagutzaren transferentzia bultzatuko duena, Ekonomia Urdinaren <b>aukera berrietan</b> oinarrituz.           |
| 2 Sektorearen eta lurraldearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzea                       | Itsasoari lotutako <b>enpresa-ehuna</b> indartzea, <b>eredu jasangarriagoetara</b> (ekonomia, gizarte eta ingurumen mailan) eta berritzaileagoetara eralda dadin bultzatuz, sektore tradizionalak negozio berriekin eta agente teknologikoekin konektatuz, eta <b>ekosistema ekintzailea</b> sustatuz, epe luzera lehiakortasuna bermatuko duten proiektuak eta praktikak sortuko dituenak.                                                           |
| 3 Itsas-lehorreko eta portuko espazio erresiliente eta iraunkorra bermatzea                       | <b>Itsasertza eta itsas eta kostaldeko eremua</b> modu orekatuan babestea eta <b>kudeatzea</b> , portu-azpiegitura seguruak, jasangarriak eta erabilera tradizionaletara zein sortuberriko sektoreetara egokitzen direla bermatuz; horrez gain, <b>ingurumen-babesa</b> eta itsasoari lotutako jardueren garapen sozial eta ekonomikoa bateragarri egitea bilatuko da.                                                                                |
| 4 Arrantza- eta akuikultura-produktuak merkaturatu duen balioa, presentzia eta kokapena handitzea | Euskal arrantza- eta akuikultura-produktuen lehiakortasuna indartzea, <b>prozesu eta produktuak berrituz</b> , eraldaketa- eta merkaturatze-ildotik berriak garatuz, eta jasangarritasuna, kalitatea eta jatorria baloratuko duten <b>merkatuak irekiz</b> , produktuaren balio erantsia handituz eta kontsumitzaileek <b>ezagutzen duten erreferente bereizgarri gisa</b> kokatuz.                                                                   |
| 5 Lankidetzak, koordinazioa eta gobernantza indartzea                                             | <b>Gobernantza-eredu</b> eraginkor eta lankidetzazkoa finkatzea (hainbat agente eta administrazio inplikaturaz), Euskadik itsasertza behar bezala kudeatzeko duen gaitasuna indartuko duena ( <b>itsas-lehorreko eta portuko jabari publikoa</b> ), eta inplikaturako sektoreen interesak koordinatu eta <b>ordezkatu ahal izango dituenak</b> , bai tokian-tokian, bai nazioartean, sektorearen ahots bateratua sustatuz eta berdintasuna bultzatuz. |
| 6 Sektorearen nortasuna sendotzea                                                                 | Euskadi, sektorearen <b>erreferente global</b> gisa kokatzea, eta, aldi berean, <b>arrantzaren eta horri lotutako sektoreen</b> inguruko pertzepzioa eta harrotasun soziala indartzea, <b>ekarpen ekonomikoa, kulturala eta lurraldekoa</b> balioetsiz.                                                                                                                                                                                               |

Lerro estrategiko bakoitza hainbat apusturen inguruan egituratzen da; apustu horiek ondoren zehaztutako ekimenak eta ekintzak segmentatzen dituzte, definitutako helburuak lortzeko

| Ildo estrategikoa                                                                  | Apustuak                                                                |
|------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|
| 1 <b>Belaunaldien arteko erreleboa bermatzea</b>                                   | Prestakuntza urdin aurreratua eta espezializatua bultzatzea             |
|                                                                                    | Talentu urdina erakartzea eta atxikitzea                                |
|                                                                                    | Enplegu urdinaren proiektzioa etorkizunerako aukera gisa                |
| 2 <b>Sektorearen eta lurraldearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzea</b>   | Sektore tradizionalak jarduerak babestea eta eraldatzea                 |
|                                                                                    | Negoio-eredu eta proiektu berriak bultzatzea                            |
|                                                                                    | Tokiko eremuan ekonomia urdineko jarduerak ezar daitezen bultzatzea     |
| 3 <b>Itsas-lehorreko eta portuko espazio erresiliente eta iraunkorra bermatzea</b> | ILJP kontserbatzea eta berreskuratzea*                                  |
|                                                                                    | Itsas-lehorreko eta portuko espazioaren kudeaketa orekatua eta bidezkoa |
|                                                                                    | Portuko eta itsasertzeko azpiegiturak egokitzea eta eguneratzea         |
|                                                                                    | Arau-, operazio-, plangintza- eta kudeaketa-garapena                    |

| Ildo estrategikoa                                                                                      | Apustuak                                                                   |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|
| 4 <b>Arrantza- eta akuikultura-produktuak merkatuan duen balioa, presentzia eta kokapena handitzea</b> | Merkaturatzea eta merkatuetarako sarbidea bultzatzea                       |
|                                                                                                        | Berrikuntza eta produktu berrien garapena sustatzea                        |
|                                                                                                        | Produktuaren aintzatespena eta bereizketa indartzea                        |
| 5 <b>Lankidetzaren koordinazioa eta gobernantza indartzea</b>                                          | Koordinazio-mekanismoak berrikustea eta indartzea                          |
|                                                                                                        | Sektorearen elkarlaneko gobernantza eta ordezkaritza-gobernantza sendotzea |
| 6 <b>Sektorearen nortasuna sendotzea</b>                                                               | Gizarte-komunikazioa eta -sentsibilizazioa bultzatzea                      |
|                                                                                                        | Sektoreko kide izatearen sentimendua sustatzea                             |

(\*) Itsasoko eta lurreko jabari publikoa



*Geurea zaindu*  
*Cuidar lo nuestro*



**#EUSKADIBERRIA**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**